



# **GOBERNU BILERA**

## **Prentsa-Txostena Gai nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

## **Dossier de Prensa Asuntos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailak 12**

**Vitoria-Gasteiz, 12 de septiembre de 2017**

## Lehendakaritza

### **EUSKO JAURLARITZAK KONSTITUZIO AUZITEGIAREN AURREAN DEFENDATU DU 12/2016 LEGEAREN, BIKTIMEI ERREKONOZIMENDUA ETA ERREPARAZIOA EMATEKOAREN LEGEZKOTASUN OSOA**

- **Espainiako Gobernuak 12/2016 Legearen aurka aurkeztutako helegitearen aurka Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako alegazio nagusien laburpena**
- **Aurkaratutako artikuluen kautelazko etendura baliogabetzea eskatzen du eta horien legezko bat-etortzea mantentzen du, biktimen errekonozimendua eta erreparazioa esparru administratiboan islatzen delako eta ez penalean**

12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 artean indarkeria politikoko egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazio ematekoa, 2016ko abuztuaren 10eko EHAAn argitaratu zen. 2017ko maiatzaren 10ean konstituzio-kontrakotasuneko helegitea jartzeko epea amaitu zen. Maiatzaren 5eko Ministro Kontseiluak hura jartzea erabaki zuen.

Estatuko administrazioak aurkeztutako helegiteak Espainiako Konstituzioaren 161.2 artikulua argudiatu zuen artikulua jakin batzuk automatikoki eteteko. Zehazki, 2.3 eta 2.4 artikulua azken tartekiari dagokionez; 4.2 c) artikulua; 7.1 artikulua; 14.1 artikulua azken tartekiari dagokionez; 14.2 artikulua c), d) eta e) letrak; 14.4 artikulua; 14.7 artikulua; 14.8 artikulua; 14.9 artikulua; 15. artikulua, eta seigarren xedapen gehigarria.

Legearen artikulua horiek etenda daude Konstituzio Auzitegiak etendura horretaz iritzia eman artean, 5 hileko epean gertatu behar dena. Hots, urriaren 10a baino lehen. Hala ere, ez dago epe jakinik goi-auzitegiak helegitearen funtsari buruz bere ebazpena eman dezan. Ohikoena da bi urte baino lehen ez gertatzea.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak, epean eta forman, alegazioak aurkeztu ditu helegitearen aurka, eta aurkaratutako artikuluen kautelazko etendura kentzea eskatu du. Alegazio-dokumentuak ondorioztatzen duenez, legeak jasotzen ez dituen enuntziatu arauemaileak legeari esleituta eraikitzen dira helegitearen argudioak. Hiru tesi nagusi defendatzen ditu: legea nazioarteko zuzenbidearen eskakizunekin bat etortzea; arauaren konstituzionaltasun osoa eta EAeren eskumena lege hori sustatzeko.

- **GIZA ESKUBIDEAK ETA BIKTIMAK BABESTEAREN ARLOKO NAZIOARTEKO TRATATU ETA AKORDIOETATIK DATORREN DOKTRINAN OINARRITZEN DA LEGEA**

Biktimen eskubideak giza eskubideen gune gogorraren zati dira. Nazioarteko tratatuek, hitzarmenek edo ebazpenek estatu guztiak lotzen dituzte eta betebeharrak argiak ezartzen dituzte haien artean. Nazioarteko arauetan jasotako

erreparazio-sistemek giza eskubideen urraketak beti modu judizialean argitzeko zailtasuna aurreikusten dute. Horregatik aurreikusten dute, espresuki, biktimen errekonozimendua eta erreparazioa prozedura administratiboan bidez, *“urraketaren egilea identifikatu, atxilotu, epaitu edo kondenatu den gorabehera”* (Nazio Batuen 60/147 Ebazpenaren 9. artikulua).

➤ **BIKTIMEN ERREKONNOZIMENDUA ETA ERREPARAZIOA 12/2016 LEGEAREN XEDEA DA, ZUZENBIDEZKO ESTATU BATEN BEREZKO ESKAKIZUNETAN TXERTATZEN DEN HELBURU BAT**

Lege honek errekonozitu eta erreparatu nahi dituen biktimak badaudela modu objektiboan egiaztatu da txostenetan, argitaratutako informazioetan edo instantzia akademiko eta aditueta. Errekonoziitu eta erreparatu ez diren giza eskubideen urraketa larriak izan direla jakinik, agindu etikoa eta demokratikoa da haiek errekonozitzeko eta erreparatzeko tresna bat sortzea. Biktimak artatzea zuzenbidezko estatuarekiko konpromiso demokratikoaren adierazpidea da. Lege hau 107/2012 Dekretuarekin sortutako politikaren jarraipena da. Orain Legearen aurka egiten diren gaitzespenik gabe abian jarri zen arau bat.

Helegiteak dio biktima-izaera lortzeko jarduketa judizial bat edo Estatu Segurtasun Indar eta Kidegoen txosten bat egon behar dela. Alegazioetan frogatzen da ebazpen judizial irmoa aurkeztea ez dela eskubide baten urraketa egiaztatzeke era bakarra. Izan ere, badira legeak indarrean, kasu bakoitzean eskatutako eskakizunen egiaztapena espresuki aurreikusten dutenak, zuzenbidean onargarriak diren beste frogamota batzuen bidez.

➤ **LEGE HAU EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMENA EZTABAIDAEZINA DA**

Espaniako Gobernuak artikuluguztiak baliogabetu nahi ditu, argitu gabe arauaren zer aginduk gairitzen dituzten eskumen autonomikoak. Legearen aurreikuspenak, bereziki ordaina emateko direnak, argi txertatzen dira gizarte-zerbitzuen esparruan, *prestazioen biztanleria onuradunean benetako egoera edo gabezia bati erantzuten baitiote, eta hura errekonozitu eta arindu nahi da.*

Euskal botere publikoak, beren eskumenaren esparruan, behartuta daude herritarren funtsezko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaintzera eta bermatzera (EAEAE 9.2 artikulua eta EK 9.2 artikulua). Hori oinarri hartuta, hiru dira Euskal Autonomia Erkidegoak lege hau emateko duen eskumen eztabaidaezina baieztatzen duten eskumen-tituluak: Gizarte-laguntza (EAEAE 10.12 artikulua), Osasuna (EAEAE 18. artikulua) eta gizarte-garapenari dagokiona (EAEAE 10.39 artikulua).

➤ **EZ DAGO JURISDIKZIO ESKUMENEN INBASIORIK. LEGEAREN HELBURUA ERREKONNOZIMENDUA ETA ERREPARAZIOA DA, EZ ZIGORRA**

Estatuak formulatzen duen jurisdikzio-eskumenen inbasioaren tesiak ez du aurkaratutako legearen literaltasunaren berri. Legeak ez du oztopatzen zigor-arloko prozesua eta ez du ezartzen inolako zehatzeko ahalik giza eskubideen urraketa sortu duten ekintzen aurka. Haren helburua ez da egitateak delitu gisa kalifikatzea ere, ezta horien egiletza finkatzea ere. Artikulueta ez dago horri buruzko inolako erreferentziarik.

Ez da hori bakarrik; Balorazio Batzordeari dagokionez, Legeak espresuki hartzen ditu honelako kautelak: une oro bermatzea espedienteetan islatuta ager daitezkeen hirugarren pertsonen eskubideak (4.2.d artikulua); bide judizialari komunikatzea preskribatu gabeko espedienteak (7.2.b artikulua); jarduketa oro etetea, egitatei buruz kausa judizial edo administratibo irekiak daudela jakiten bada (14.5 artikulua), eta datuen babeserako eskubidea babestea administrazio publikoen artean lankidetzat gertatzen denean (14.2.c artikulua). Legean aurreikusitako prozedura administratiboaren erregulazioak jurisdikzio penalaren nagusitasuna errespetatzen du, eta biktimen errekonozimendura eta erreparaziora mugatzen da.

## Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

### **EUSKO JAURLARITZAK % 1EKO SOLDATA IGOERA ORDAINDUKO DIE EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO LANGILE GUZTIEI IRAILEKO NOMINAN**

- **Neurriak 42 milioi euroko eragina izango du aurrekontuan eta atzeraeraginez aplikatuko da 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera**

Gobernu Kontseiluak Euskal Administrazio Publikoan lan egiten duten langileen ordainsarien % 1eko gehikuntza onartu du gaur. Erabaki horrek 42 milioi euroko aurrekontu-kostua du eta iraileko nominan hasiko dira ordaintzen. Langile publikoen soldata-igoerak atzeraeragina izango du 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera.

*Apirilaren 11ko 2/2017 Legean, 2017ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzekoan aurreikusitako neurri bat da eta Administrazio Orokorreko, Erakunde Autonomoetako eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetako langile funtzionarioei eta estatutupekoiei aplikatuko zaie.*

### **EUSKO JAURLARITZAK KONTRAKO IRIZPIDEA EMAN DU, EITB-REN ERREFORMARI EKITEKO, HORRETARAKO SORTUTAKO LEGE BILTZARRAREN BATZORDEA ALDE BATERA UTZITA**

- **Gogorarazi du Eusko Legebiltzarrak berak erabaki duela euskal erakunde publikoaren erreforma batzorde bereziaren bidez aztertzea eta esparru horretan egin behar direla horri buruzko proposamen guztiak**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Elkarrekin-Podemos taldeak proposatutako “5/1982 Legea, Euskal-Irrati Telebista Herri Erakundea sortzeari buruzkoa, aldatzeko lege-proposamena” kontuan hartzearen kontrako irizpidea azaldu du. Ekimenaren bidez, 5/1982 Legearen 9. artikulua aldatu nahi da, organo horretan parte hartzen duten sailburuen kontrol- eta fiskalizazio-gaitasuna handitzeko.

Gobernua eztabaida horren kontra dago; izan ere, Legebiltzarreko talde horrek Eusko Legebiltzarrak berak euskal erakunde publikoaren erreformaren inguruan aztertzeko eta eztabaidatzeko sortutako batzorde berezia alde batera utzita proposatu du. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak gogorarazi du Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak uko egin diola, aurretik, argudio berekin, talde legebiltzarkide berak aurkeztutako lege beraren erreformari buruzko lege-proposamen bati.

## Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

### GOBERNUAK EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAN ZUZENDARITZAKO ERANTZUKIZUNA DUTEN KARGU ETA BEHIN BEHINEKO LANGILEEN KATALOGOA EGUNERATU DU

- Katalogoa Gobernuaren konpromisoa da, herritarrek erantzukizun publikoa dutenen lanpostuei buruzko informazio guztia izateko eskubidearekin, gardentasun osoarekin eta publizitate aktiboarekin, eta beraz, herritarrek eskuragarri dute informazio hori [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) web-orrialdean

Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du “*Euskal Autonomia Erkidegoko Kargu Publikoen Katalogoa*”ren eguneratzea. Horrela, hura sortu zuen dekretuaren, azaroaren 18ko 216/2014 Dekretuaren, xedapen gehigarria betetzen da; bertan ezartzen da Eusko Jaurlaritzak urtero eguneratu beharko duela.

Eguneratzeaz eta *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian*, EHAA, argitaratzeaz gainera, Eusko Jaurlaritzak herritar guztientzat eskuragarri jartzen du web-orrialde ofizialean ([www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)), konpromiso gisa, erantzukizun publikoko karguak betetzen dituzten pertsoneri buruzko informazio guztia izateko eskubidearekin, gardentasun osoarekin eta publizitate aktiboarekin.

Katalogo honetan, “*Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publiko*”ko kargu publikoen eta behin-behineko karguen postu guztiak jaso ditu, baita Eusko Legebiltzarrak onetsitako “*ekainaren 26ko 1/2014 Legearen (Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituena) 2.1.e) artikuluan jaso diren organo eta erakunde*”etako kargu publikoen eta behin-behineko langileen postu guztiak ere.

### 2016KO HAUTESKUNDEAK

Eusko Jaurlaritzak, orain arte, urteko lehen hiruhilekoan eguneratu izan du katalogoa, baina, oraingoan, eta iazko hauteskunde-prozesua, sailen aldaketak, beren eskumenenak eta mendekotasun organikoenak direla-eta, ulertu da, karguak funtzio berrietara eta esleitutako jarduketara-arloetara egokituta egotean, komeni zela eguneratzearekin hastea.

## Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### **EUSKADI #PORELCLIMA KOMUNITATEARI ATXIKITZEKO PROPOSAMENA, PERTSONA, ENPRESA, ERAKUNDE ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EKIMEN AITZINDARIA KLIMA- ALDAKETAREN AURKAKO BORROKAN**

#### ➤ **Klima-aldaketaren aurkako borroka Euskadin**

Euskadi herrialde konprometitua da klima-aldaketaren aurkako borrokarekin. Europar Batasuneko guztizko emisioen ekarpen txikia da gurea, % 0,5 eskas, baina Euskal Autonomia Erkidegoak deskarbonizazioarekin duen konpromisoa irmoa da, Eusko Jaurlaritzaren Klima-aldaketaren Estrategia-Klima 2050 estrategiak, 2015eko ekainaren 2an onartuak, erakusten duen bezala.

Estrategia zeharkako tresna da eta Eusko Jaurlaritzako sail guztien artean koordinatua, eta hiru lurralde historikoen eta horien udalerrien mailan bultzatzen ari diren politikekin lotua. Haren helburu nagusiak dira berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak 2030. urtean gutxienez % 40 murriztea 2005eko balioen aldean, eta 2050erako BEGen emisioak gutxienez % 70 murriztea, horiek ere 2005eko aldean.

Eusko Jaurlaritzan uste dugu klima-aldaketa erronka izugarria dela eta maila administratibo guztietan gobernantza eraginkor batetik hel dakiokoela. Nazioarteko politikak, nazionalak, eskualdekoak eta udalekoak beren artean koherenteak izatea lortu nahi da, ahaztu gabe elkarren osagarriak direla esparru bakoitzean dauden erantzukizunen barruan.

Hain zuzen, klima-aldaketari buruzko Pariseko Akordioak aitortzen du azpiestatuko erabaki-esparruek zer zeregin duten munduak egin behar duen eraldaketan, planetaren tenperatura-gehikuntza 2° C-tik behera mantendu nahi badugu.

Horren erakusgarri dira agertu diren ekimen ugariak: lankidetzakoak, jardunbide egokiak trukatzekoak edo emisioen inbentarioa egitekoak, hala nola Network of Regional Governments for Sustainable Development-NRG4SD, The Climate Group, ICLEI, Carbon Disclosure Project (CDP), The Compact of Regions, The Covenant of Mayors edo The Compact of Mayors. Horiek guztiak informazio-trukeari eta eskualdeen, udalen edo gizarte zibilaren esparruko lankidetzari begira daude. Euskal Autonomia Erkidegoak modu aktiboan hartzen du parte ekimen horietan Eusko Jaurlaritzaren eta Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea-Udalsarea 21en bidez.

Erantzukizun eta konpromiso konpartituen testuinguru horretan planteatzen da Euskadi #PorElClima Komunitateari atxikitzea. Ekintza-plataforma bat da hori, Pariseko Akordioa inplementatzeko eta akordioa osatzen duten Garapen Iraunkorreko 17 Helburuetatik (GIH) 13.a lortzeko.

➤ **Zer da #PorEIClima Komunitatea?**

#PorEIClima Komunitatea aurreko [COP22](#) klimaren gailurrean onartutako Marrakex-eko Aliantzatik sortu da eta beste urrats bat da Pariseko Tratatuaren ondoren. Haren helburua da gizarte zibilar ekintzara dei egitea, berotze globalari aurre egiteko abian jartzen ari diren ekintzak arintzeko bide-orri baten bidez.

Fundación Ecología y Desarrollo (ECODES) da #PorEIClima Komunitatearen buru, eta ekimena bultzatzen duen taldeak partaide hauek ditu: Oficina Española de Cambio Climático, Fundación Biodiversidad, Asociación Española del Pacto Mundial, Grupo Español de Crecimiento Verde, Gurutze Gorria, WWF eta SEO-Birdlife.

Horrela, #PorEIClima Ekintza-komunitateak Estatu osoko enpresa, erakunde, administrazio publiko eta herritar berritzaile, erantzunkide eta proaktiboenen topagunea izan nahi du. Gizartearen klimaren aldeko ekintza ikusgai egin nahi du, aktore berrien atxikipenak bilatuz eta lurralde osoan ekintzaren mobilizazioan lagunduz eta hura erraztuz. 2016ko azken hiruhilekoan abian jarritako ekimen hau, gainera, Nazio Batuen garapen iraunkorreko helburuak lortzea sustatzeko da, zehazki 13. GIH, klimaren aldeko ekintza, klima-aldaketa gelditzeko hezkuntza, sentsibilizazioa eta ekintzak inplementatzea hobetuta.

Eusko Jaurlaritza #PorEIClima Komunitateari atxikita, bultzada berria eman nahi zaio eragile publikoek eta pribatuek eta oro har euskal herritarrek klima-aldaketaren aurkako borrokarekin eta haren ondorioetara egokitzearekin duten benetako konpromisoari.

➤ **Konpromisoak**

Hartutako konpromisoak, Klima 2050 estrategian jasotakoen ildotik, bost puntu hauetan oinarritzen dira:

- **Zeharkako ekintza:** klima-aldaketa arintzea eta hartara egokitzea plangintza publikoan integratzea.
- **Ereduzko administrazioa:** Administrazioaren ekintza eredu-emalea eta koordinatua bultzatzea, karbono gutxiko eta egokitutako gizarte baterako eraldaketa lortzeko.
- **Berrikuntza eta aukerak:** berrikuntza eta garapen teknologikoa sostengatzea BEGen emisioak sektore guztietan murrizteko, eta lurraldeak klima-aldaketaren aurrean duen ahultasuna murriztea.
- **Zero emisioak kultura:** arintze- eta egokitze-ekintzetan euskal eragile guztien erantzunkidetasuna erraztea.
- **Eraldatzeko jakitea:** klima-aldaketari buruzko ezagutza erabakiak hartzeari egokitzea.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzak #PorEIClima Komunitateari atxikitzea erabaki du. Ekimen aitzindaria, helburu komun batekin batzen diren pertsona, enpresa, erakunde eta administrazio publikoena: klima-aldaketaren aurkako ekintzaren protagonista izatea Pariseko Akordioarekin ezarritako gidalerroen arabera.



## Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### **1,4 MILIOI EURO ENPRESETAKO INBERTSIOETARAKO LAGUNTZETAN INGURUMENA HOBETZEKO**

Gobernu Kontseiluak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren Agindua onartu du gaur, ingurumena babesteko inbertsioak egiten dituzten enpresentzat 2017 ekitaldirako diru-laguntzak deitzeko. Laguntzak ezingo dira izan 200.000 eurotik gorakoak enpresako eta proiektuko, eta irizpide berriak dituzte diru-laguntzen lerroak finkatzean.

Honetarako dira:

- Finantzatzeko ingurumen-babesaren arloan EBko arauetatik harago joateko aukera emango duten inbertsioak, edo Euskadin inpaktu handiko enpresa-elkartearen (siderurgia, papera, eraispena, etab.) araurik ezean ingurumen-babesaren maila handituko dutenak. Inbertsioak moldekatzeko harea eta jalkin xeheak birziklatzeko ekipamenduetan galdaketa-prozesuan berriz sartzeko, edo inbertsioak papergintzako lohiak minimizatzeke, berreskuratzeke edo balorizatzeke ekipamenduetan paper-orearen produkzioan berriz sartzeko.
- Hondakinen minimizazioa, fabrikan birsortzea eta/edo hirugarrenek birziklatzea ahalbidetzea.
- Ingurumen-arloko EBko etorkizuneko arauetara egokitze aurreratua erraztea.
- Berotegi-efektuko gasen emisioa edo euri azidoa minimizatzeke ingurumen-azterketak egitea, eta galdaketako hondakinak beste xede batzuetarako birbaliatzea.
- Erabiltzen ez diren ibilgailuen osagaiak birziklatzea erraztuko duten gailuak eskuratzea eta haien hondakinen deskontaminazio azkarra.
- Inbertsioak eraikuntzako eta eraispeneke hondakin-nahasketak bereizteke gailu/makinetan, gero ondoriozko frakzioak balorizatzeke aukera emango dutenak.
- Lursail kutsatuen saneamendua kutsaduraren sortzailea ezin erantzule egin eta/edo identifikatu denean.
- Laguntzak ETEei ingurumenaren arloko kanpo-aholkularitzako zerbitzuen ondorioz sortutako kanpo-kostuak finantzatzeke Ingurumena Kudeatzeko Europako Sistemaren (EMAS) erregistroaren bultzadan; ekodiseinuari, ekoetiketei edo karbono- eta ingurumen-arrastoaren erregistroari buruzko araudia ezartzea, edo lurzoruaren kalitatearen adierazpena egitea.

Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura milioi bat eta laurehun mila (1.400.000) eurokoa da. Enpresa txiki eta ertainen kasuan, Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) batera finantzatuko ditu laguntzak, diruz lagundutako zenbatekoaren ehuneko berrogeita hamar jarrita.

Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez egin beharko dira eta aurkezteko epea Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunean zabaldu eta urriaren 19an amaituko da. Diru-laguntzen emakida sei hileko epean ebatziko da gehienez, horien deialdia argitaratzen den biharamunetik aurrera.

## Ogasuna eta Ekonomia

### ALBA URRESOLA CLAVERO, LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAKO PRESIDENTE BERRIA

- **María Pilar Canedo Arrillaga ordezkatuko du**
- **Enara Venturini Álvarez, Lehiaren Euskal Kontseiluko kide izendatua**

Gobernu Kontseiluak, Ogasun eta Ekonomia sailburuak proposatuta, dekretuak onartu ditu gaurko bileran, Alba Urresola Clavero andrea Lehiaren Euskal Agintaritzaren presidente eta Enara Venturini Álvarez andrea organo horren kide izendatzeko.

Urresolak María Pilar Canedo Arrillaga andrea ordezkatuko du karguan, hark joan den 2017ko ekainaren 27an karguari uko egin ondoren.

Alba Urresola lizentziatua da Zuzenbidean Europako Erkidegoko Zuzenbideko Graduondokoarekin Deustuko Unibertsitatean. Masterra egin zuen Europako Erkidegoko Zuzenbidean College d'Europe Brujas-en (Belgika) eta 2001etik gaur arte Guggenheim Bilbo Museoaren Fundazioko Aholkularitza Juridikoko eta Barne Kontroleko zuzendariordea izan da.

Merkataritza Zuzenbideko eta Lehiaren Zuzenbideko karrera profesional zabal bat garatzeaz gain, bere prestakuntza praktikoa Europako Erkidegoko eta Lehiaren Zuzenbidearekin osatzen da, Euskadik Bruselan duen Ordezkaritzan.

Bestetik, Enara Venturini Álvarezek kudeatzaile-kargua betetzen zuen orain arte Amorebieta-Etxanoko Udalaren Ametx Erakunde Autonomoan. Deustuko Unibertsitatean Enpresa Zuzendaritzan Executive Masterrarekin lizentziatua Zuzenbidean, diplomatua da Europako Ikaskuntzetan Belgikako Lovainako Unibertsitatean, eta bere jarduera profesionala Europako Erkidegoko Zuzenbidean eta Enpresa Kudeaketan garatu da batik bat, bai sektore pribatuan, bai publikoan.

## Ogasuna eta Ekonomia

### **DIRU BILKETA KUDEATZEKO LANETAKO ZERBITZU OSAGARRIEN KONTRATUAREN BAIMENA**

Gobernu Kontseiluak 5.000.000 eurotik gorako aurrekontuko kontratua baimendu du, zuzenbide publikoko sarreren diru-bilketa premiamendu-bidez kudeatzeko zerbitzu osagarriak eta lankidetzakoak eta laguntzakoak egiteko.

Egungo kontratuaren indarraldia betetzear dagoen honetan, berria 2021 arte luzatuko da, urteetan banatuta, guztira 9.440.000 euroraino.

Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza arduratzen da epe boluntarioan zergaz besteko zuzenbide publikoko sarreren diru-bilketa kudeatzeaz, prezio publikoak izan ezik, eta diru-bilketa edozein kontzeptugatik kudeatzeaz, epe exekutiboan haren zuzendaritza eta gainbegiratzea barnean hartuta. Kontratu honen helburu nagusia da Eusko Jaurlaritzaren eskubideen diru-bilketako errendimenduak optimizatzea.

## Hezkuntza

### 42 milioi euro Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentzuen finantziatorako, 2018-2021 aldira

- Hezkuntza Sailak bi milioi euroan handitu du finantziarioa, 2014-2017 aldireraino aldatuta
- Diru-laguntzak jasoko dituzten zentzuen zientzia-dibulgazio eta transferentzia Plan bana aurkeztu beharko dute
- Bikaintasunera bideratuo da gutxienik arrekontuaren %40

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, 2018-2021 aldira Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentzuen (BERC deiturikoei) diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen agindua. Hezkuntza Sailak 42 milioi euro bideratzen ditu laguntza horietarako, aurreko lau urteko deialdira baino 2 milioi euro gehiago (2014-2017 aldira izan zen aurrekoa).

Diru-laguntza hauen bidez lehen mailako ikerketa zientifikoa sustatu nahi da, Euskadin ikerketa zientifikoa eta teknologikoa kalitatea areagotzeko, batetik, eta estrategikotzat jotako espezializazio zientifikoko arloetan nazioartean ezagutza lortu duten ikertzaileak erakartzeko asmoz, bestetik. Arlo horiek egiten den ikerketaren bikaintasuna eta nazioarteko eragina katalizatuko dituzte. Horregatik, ekimen honek harreman estua du Ikerbasque Fundazioak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistematik kanpoko ikertzaileak erakartzeko egiten duen lanarekin.

Deialdi honek, lehen aldiz, bikaintasuneko ikerketan mundu mailako erreferentzia izango den zentro bat edo gehiago eratzeko berriazko finantziarioa jasotzen du, deialdiaren arrekontuaren %10 ekimen horri eskainiz.

Diru-laguntza hauek, beraz, BERCCen garapenari laguntzea dute helburu, haien jardura ez ekonomikoari finantziarioa eskainiz, proposamenean eta emaitzen ebaluazioaren bidez. Diru-laguntza jasotzen duten ikerketa zentzuen, besteak beste, honako gastu hauei aurre egiteko erabili ahal izango dituzte laguntza ekonomikoak: pertsonal gastuak, ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu, hobetu edo alokatzeko, material suntsikorren hornidurarako, edo jardura zientifikoa antolatzeke.

Ikerbasque Fundazioa, erakunde laguntzaile denez, diru-laguntza hauen kudeaketaz arduratuko da. Beste zenbait eginkizunen artean, zentzuen aurkezturiko proposamenean ebaluazioa burutuko du, bai eta lortutako emaitzen amaierako ebaluazioa ere.

## Zientzia-dibulgaziorako plana

BERC zentroek Euskadiko zientzia-dibulgazio politiketan erreferentziazko eragile izan behar dutenez, deialdi berri honek badakar beste berritasun bat ere, aurrez aipaturiko aurrekontu igoeraz gain: erakunde onuradunek zientzia-dibulgazio eta transferentzia Plan bana aurkeztu beharko dute. Neurri hau mesedegarri gertatuko da gizartean zientziaz den ezagutza areagotzeko, eta ikerketara bideratzen diren bitarteko publikoak zertarako erabiltzen diren ezagutaraziko zaizkie herritarrei. Era berean, 2018-2021 aldi berrian, elkarte onuradunek nazioartekotze eta berdintasun plan bana ere aurkeztu beharko dituzte.

Zientzia bikaintasunezko esparruan ikerketa berritzailea sustatzeko helburuarekin bat eginez, deialdi honetan bikaintasunera bideratutako finantziarioa aurrekontuaren %40koa izango da gutxienik. Ondorioz, gainerako %60 bideratuko da gehienez BERC zentroyen egitura finantzatzera. Aurreko deialdietan %75 bideratzen zen egituraren finantziatorako, eta %25 bikaintasunerako.

### **BERC. Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak**

Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak (*Basque Excellence Research Centres- BERC*) Euskadirako interes zientifikoko eremuetan ezagutza sortzeko egiturak dira eta ikerketaren bikaintasuna dute ezaugarri. Zentro hauek Euskal Unibertsitate Sistemari eta Euskadin burutzen den ikerketa zientifikoko guztian puntako izateko sortuak dira, bai eta Europako jakintzagune izan daitezzen ere, mundu zabalean dauden beste zentro batzuekin loturik.

BERC zentroak eratu eta martxan jarri ondoren, Euskadiko unibertsitateetako eta beste I+G+b zentro batzuetako ikertzaileekin elkarlanerako mekanismoak ezartzen dituzte, honela ikerketarako duten gaitasuna nahi lehiakortasuna bultzatuz.

Egun, honako hauek dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean BERC kategorian –eta Hezkuntza Sailaren menpe- aurki ditzakegun zentroak:

- Achucarro - Basque Center for Neuroscience
- BC3 – Basque Centre for Climate Change
- BCAM – Basque Center for Applied Mathematics
- BCBL – Basque Center on Cognition, Brain and Language
- BCMATERIALS – Basque Center for Materials, Applications and Nanostructures
- DIPC- Donostia International Physics Center
- FBB - Bizkaia Biofisika Fundazioa
- MPC – Materials Physics Center
- POLYMAT – Basque Center for Macromolecular Design and Engineering

Gaur egun, zentro hauek 500 ikertzaile inguru dituzte lanean, BERCaren ikertzaile eskusiboak eta atxikitako langileak batuta (Euskal Unibertsitate Sistemako langileak, UPV/EHUkoak, zentroarekin ikertzaile gisa lankidetzan estuan ari direnak). Zentro hauen produkzio zientifikoari dagokionez, 2016an

Euskadiko BERC zentroek 780 artikulua publikatu zituzten aldizkari indexatuetan. Kopuru hori dagoeneko Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sistema osoaren produkzio zientifikoaren %15 da, eta zentro hauek sisteman duten gero eta pisu handiagoaren erakusle.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 234.000 EUROKO KONTU-SAILA ONARTU DU EUSKAL ETXEEI LAGUNTZEKO EUSKARAREN IRAKASKUNTZAN**

- **Deialdi honen bidez bultzatutako 'Euskara munduan' programak 2.000 ikasle heldu baino gehiago ditu mundu zabalean**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 234.000 euroko kontu-saila onartu du euskal etxeei diru-laguntzak emateko euskara irakats dezaten. HABEK bideratutako deialdi honi esker, euskal etxeek ikastaroak eskainiko dituzte, 2017ko urritik 2018ko irailera, *Euskara munduan* programaren barnean.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren menpe dagoen HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) bere egitekoen artean dauka diasporako euskal etxeetan euskara ikasteko jarduerak sustatzea. Horiek horrela, hiru arlo ezberdinetan egiten du lan deialdi honi esker:

- Irakasleen prestakuntza: Euskararen irakaskuntza euskal etxeetan eten ez dadin, plan ezberdinak burutzen dira giza-baliabideak sustatzeko. Europan, Ipar Amerikan eta Hego Amerikan badira irakasleen gaitasuna trebatzeko hiru plan ezberdin.
- Ikas-materialak: Euskararen irakaskuntza egokia izan dadin, diru-laguntzen zati bat ikas-materialak erosten laguntzera bideratzen da. Boga on-line programa, Aisa oinarrizko mailetako ikasleentzako programa, Ikasbil ataleko materialak edota aurrez-aurre erabiltzeko materialak ikaslearen esku jartzen dira programa honen bidez.
- Eskola-orduak babesteko diru-laguntza: Kontu-sailaren parte bat eskolak babestera bideratzen da.

HABEk 31 hitzarmen ditu mundu osoko 28 euskal etxe eta 3 federakuntzarekin. Horiei esker, 75-80 bat euskal etxeetan ematen dira eskolak urtero (guztira, 190 euskal etxe daude munduan) eta, gaur egun, 2.000 ikasle heldu baino gehiago ari da euskara ikasten programa honen barruan.

*Argentinan Euskaraz* plana 1989an jarri zen martxan, eta handik hamar urtera *Euskara munduan* proiektua sortu zen. Proiektu honi esker, euskara mundu zabalean ikas daiteke gaur egun.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### EUSKO JAURLARITZAK 350.000 EURO ONARTU DITU KULTURA JAIALDIEN PROGRAMAZIOA SUSTATZEKO

- **laz atera gabe izan ostean, deialdi berregituratua berriro dago martxan**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 350.000 euroko kontu-saila onartu du kulturaren arlo ezberdinetan jaialdien programazioa diruz laguntzeko. Deialdi honi esker, musikaren, antzerkiaren, dantzaren, literaturaren, ikusizko arteen eta ikus-entzunezkoaren arloan antolatzen diren jaialdiek Eusko Jaularitzaren babesa izango dute.

Deialdi hau ez zen indarrean egon iaz, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak berregituratu eta eraberritu nahi izan zuelako. Aurtengo deialdia jaialdi pribatuetara mugatuko da, alegia, erakunde publikoek antolatutakoak ezin izango dira aurkeztu (jaialdi publiko askok Eusko Jaurlaritzak bultzatutako deialdi izendunak jasotzen dituzte). Horrez gain, deialdiaren eredu berriak bi multzotan banatzen ditu jaialdiak. Alde batetik, jaialdi handiak daude, 100.000 euro baino gehiagoko aurrekontua dutenak; bestetik, jaialdi txikiak daude, 100.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua dutenak. Banaketa berri honen helburua da jaialdi nagusien eta txikien arteko lehia desorekaturik ez sortzea.

Gutxieneko aurrekontua eskatuko zaie jaialdiei diru-laguntza jaso ahal izateko. Deialdiaren azken edizioan 60 jaialdik jaso zuten diru-laguntzaren bat. Deialdi honetaz aparte, Eusko Jaurlaritzak hainbat jaialdi laguntzen ditu diru-laguntza izendunen bidez.

## Presidencia

### **EL GOBIERNO VASCO DEFIENDE ANTE EL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL LA PLENA LEGALIDAD DE LA LEY 12/2016 DE RECONOCIMIENTO Y REPARACIÓN DE VÍCTIMAS**

- **Resumen de las principales alegaciones presentadas por el Gobierno Vasco al recurso presentado por el Gobierno español contra la Ley 12/2016**
- **Solicita anular la suspensión cautelar de los artículos impugnados y sostiene su encaje legal porque el reconocimiento y reparación de víctimas se plasma en el ámbito administrativo y no en el penal**

La Ley 12/2016, de 28 de julio, de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de violencia política en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre 1978 y 1999, se publicó en el BOPV, de 10 de agosto de 2016. El 10 de mayo de 2017 finalizaba el plazo para la interposición del recurso de inconstitucionalidad. El Consejo de Ministros de 5 de mayo acordó su interposición.

El recurso presentado por la administración del Estado invocó el art. 161.2 CE para producir la suspensión automática de determinados artículos. Concretamente, los arts. 2.3, art. 2.4 en cuanto al inciso final; art. 4,2 c); art. 7.1; art. 14.1 en cuanto al inciso final; art. 14.2 apartados c), d) y e); art. 14.4; art. 14.7; art. 14.8; art. 14.9; art. 15; y disposición adicional sexta.

Estos artículos de la ley están suspendidos en tanto el Tribunal Constitucional no se pronuncie ante esta suspensión, lo que debe tener lugar en el plazo de 5 meses. Es decir, antes del 10 de octubre. Sin embargo, no existe un plazo predeterminado para que el alto tribunal emita su resolución sobre el fondo del recurso. Lo habitual es que no se produzca antes de dos años.

En este contexto, el Gobierno Vasco ha presentado, en plazo y forma, alegaciones al recurso y ha solicitado el levantamiento de la suspensión cautelar de los artículos impugnados. El documento de alegaciones concluye que los argumentos del recurso se construyen a partir de la atribución a la ley de enunciados normativos que esta no contiene. Defiende tres tesis centrales: el encaje de la Ley en los requerimientos del derecho internacional; la constitucionalidad de la norma; y la competencia de la CAPV para promover esta ley.

- **LA LEY SE ASIENTA EN LA DOCTRINA QUE EMANA DE LOS TRATADOS Y ACUERDOS INTERNACIONALES EN MATERIA DE PROTECCIÓN DE LOS DERECHOS HUMANOS Y DE LAS VÍCTIMAS**

Los derechos de las víctimas forman parte del núcleo duro de los derechos humanos. Los tratados, convenios o resoluciones internacionales vinculan a

todos los Estados y establecen claras obligaciones hacia ellos. Los sistemas de reparación recogidos en las normas internacionales prevén la dificultad de poder esclarecer judicialmente siempre las violaciones de derechos humanos. Contemplan, por ello, expresamente el reconocimiento y la reparación a las víctimas mediante procedimientos administrativos, *“con independencia de si el autor de la violación ha sido identificado, aprehendido, juzgado o condenado”* (Artículo 9 de la Resolución 60/147 de Naciones Unidas).

- EL RECONOCIMIENTO Y REPARACIÓN DE LAS VÍCTIMAS CONSTITUYE EL OBJETO DE LA LEY 12/2016, UN OBJETIVO QUE SE INSERTA EN LOS REQUERIMIENTOS PROPIOS DE UN ESTADO DE DERECHO

